EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

PARTE ZAHARREKO HAINBAT ZERBITZUREN BIRKOKAPENAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Bretxako obrak hasten direnean hainbat zerbitzuk hartuko duten birkokapenaren inguruan, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko urriaren 17ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Udal Gobernuak, urteetako lanaren ondoren, eta oztopo politiko guztiak gainditurz, Bretxako Arraindegi eraikinaren erabilera berreskuratu zuen. Argi dago Erdialdeak eta Parte Zaharrak zerbitzu publikoen beharra dutela, baina lursail egokirik ez dutela.

Aurreko Udal Gobernuak, Arraindegia eraikinean, auzo elkartea, gaztelekua eta haur txokoa behin behingoz kokatu zituen. Ekainean alkateari gai honi buruz eskatutako agerraldian, obrak hasten direnean aipatutako zerbitzu hauek non kokatuko ziren galdetu genion; Parte Zaharrean Udalak lokalak bazituela eta ez kezkatzeko erantzun zigun. Denbora aurrera doa eta nahiz eta Arraindegian obrak ez diren hasi, Udal Gobernuak ez zuen inongo erabakirik hartu birkokapen horretaz. Hori dela eta, hilabete honetan gai honen harira alkateari berriz galdetu diogu. Erantzuna bera izan da; hau da, oraindik ez dela erabakirik hartu. Gainera, leku berriak, ziurrenik, egokitzeko obrak beharko lituzke.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio auzo elkartearentzat, gaztelekuarentzat eta haurtxokoarentzat birkokapena landu dezala; hau da, gunea erabaki eta behar den proiektua landu dezala eragileekin, Arraindegian obrak hasten direnean esandako zerbitzuetan etenik izan ez dadin.

Donostian 2016ko urriaren 21an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia